

Euskal nazio garaikidearen azterketa futbol-ekitaldiaren bitartez

Ekain Rojo Labaien
UPV/EHUko doktorea, Nor Ikerketa Taldea

Euskal nazio-nortasuna eta futbol-ekitaldia elkar hartuta joan dira 1920ko hamarkadaz geroztik. Orduan, Industria Iraultza berantiarraren garai berebean gizarteratu ziren euskal nazionalismoak eta haren joerako prentsa idatziak berena egin zuten futbola. Frankismoaren lau hamarkadako debekuaren aldi euskal sinboloen azken gotorleku izan zen. XXI. mendeko aro eraberrituan, berriz, euskal nazioaren ispilu konplexua izatera igaro da futbol-ekitaldia. Estatu-gabeziaren auziak, euskal nazionalismoaren baitako zatiketek eta euskal komunitatearen partaide sentitzeko askotariko hautemate moduek zaildu egin dute era bateratuan euskal nazioa gorpuztea. Hala, artikulu honen helburua da futbol-ekitaldia erabiltzea euskal nazioaren gaur egungo bidegurutzea aztertzeke gizarte-zientziaren tresna modura. Euskal taldeen osaeraren berezitasuna eta euskal nazio-selekzioaren ezintasuna nabarmenduko dira horretarako.

GAKO-HITZAK: Futbola · Euskal Herria · Nazionalismoa · Kirola · Sinboloa.

Contemporary Basque nation within the frame of football culture

Basque identity and football have gone hand-in-hand since the birth of both the Basque nationalism movement and the pioneering press that favoured it, which were created at the same time as the arrival of the British sport during the late Industrial Age. Football was the bastion of the symbols of the Basque nation during and since the long-lived Francoist dictatorship in Spain, and nowadays it has become a reflection of the complexity of the Basque nation. The absence of a Basque State, the divisions within the Basque movement, and the different perceptions to the sentiment of belonging to the Basque national collective have made it difficult for the Basque Country to embody an unitary notion of a nation. This article uses football culture as a social research tool to analyse the crossroad of the nation. It examines the distinctive composition of the Basque clubs and the impossibility of having an officially recognised Basque national team.

KEY WORDS: Football · Basque Country · Nationalism · Sport · Symbol.

Jasotze data: 2015-02-26 *Onartze data:* 2015-04-24

1. Sarrera eta motibazioa¹

Industria Iraultza berantiarren testuinguruan elkar hartuta gizarteratu ziren Euskal Herrian britainiar jatorriko futbol-ekitaldia eta euskal nazionalismoa, XIX. mendearen amaieran. Gizarte-eraldaketa handiaren garaia zen, bereziki Bilboaldeko gunearen baitako hiritartze eskergarena, bertako meatzetara Espainiako milaka behargin etorraziti zituena. Karlismo mugimendutik, eta 1876ko euskal foruen behin betiko desagertpenari erantzunez, sortu zen euskal nazionalismoa, egokiera horretan euskal izaera kolektiboaren biziraupena arriskuan zela hautemanda. 1894an sortu zuen Sabino Aranak Bilbon, eta urte bereko maiatzean *El Noticiero Bilbaíno* egunkariak Euskal Herrian jokaturako lehen futbol partidaren berri eman zuen, Areetan gertatua (Castañón Rodríguez, 1993: 42). Hala, futbola eta nazionalismoa Industria Iraultzaren bihotzean gertakari garaikideak izan ziren. Urte berean biak aldiberekoak izatea zoriaren halabeharra da, baina ezin uka daiteke meatze-industriaren ustiapenak euskal nazio-nortasunaren aro garaikidea ezaugarritu duten bi alderdi horien iritsieran eragin zuzena izan zuenik. Egunkari aitzindarien bidetik, masa-komunikazioaren ezarpenak biribilduko zuen artikulu honetan ardatz nagusi izango den euskal nazionalismoaren, futbol-gertaeraren eta hedabideen hiruko eragingarria. Horren bidez, 1920ko hamarkadarako, Euskal Herria, Espainiaren mendeko industria-gunea zehazki esateko, futbol-ekitaldiaren sorleku-ardatz bihurtua zen (Walton, 1999: 261). Espainia mailan 1936ko gerra bitartean izan ziren talde eta futbolari garaitsuenetakoak euskal herritarrak izan ziren. Gerra zibilean, Euzkadi deitutako euskal futbol-selekzioa nazioaren sinbolo bihurtu zen. Frankismo-garaiko bigarren aroan, gainera, euskal izaeraren gotorleku eta adierazpide bihurtu ziren euskal klubak.

Espainiako estatu-nazioaren eta haren baitako estaturik gabeko nazioen arteko borroka ebatzi gabe igaro zen XX. mendea, eta futbolak bere aparteko sona nazio-nortasunen arteko gatazka horiek haragitzen sustraitu du funtsean (Rojo-Labaien, 2014b: 31). Globalizazioaren fluxuek eta ziurgabetasunak ezaugarritutako XXI. mendearen hasieran, nazionalismoek eta futbol-ekitaldiak batera aldibereko loraldia izan dute (Sonntag, 2008: 103), eta zentzu horretan, Euskal Herriko eta Espainiako azkeneko urteetako gertaerak bilakaera horren argigarriak dira. Alde batetik, Espainiako futboleko nazio-selekzioaren aurrekaririk gabeko nazioarteko garaipenek eragindako nazionalismoaren pizkundera agerbide da, Euskal Herriko karrketan ere hautemangarria izan zena. Bestalde, hurrenez hurren, 2009, 2012 eta 2015eko Espainiako Errege Koparen finaletan Athleticceko eta Bartzelonako euskal eta kataluniar jarraitzaileek espainiar ereserki eta erregetzari egindako protesta jendetsuak aztergai dira. Futbola gaur egungo gizarte modernoaren konplexutasunaren isla da (Bromberger, 1995: 377) eta Espainiako Estatuari dagokionez, nazio-nortasunen arteko oreka konplexuaren agertokia, bertako gizartearen pluralitatearen berri ematen duena (Llopis Goig, 2008: 61). Ez hori bakarrik, Euskal Herrian ere, kirolek oro har, eta futbolak oroz gain, barruko nazio-atxikimenduen gatazka

1. Ikerlan hau bi erakunde hauen laguntzaz burutu da. Alde batetik, lehenik, Eusko Jaurlaritzaren Ikertzaileen Prestakuntzarako Programaren laguntzari esker. Bestetik, ondoren, UPV/EHUren doktore berriak kontratatuzeko eta horiek doktorego ondoko prestakuntza-programetan sartzeko laguntzari esker.

islatu dute, baita euskal nazio-nortasuna lehenesten dutenen artekoa ere, euskal selekzioaren adiskidantzazko partiden harira berriki adierazi izan dena.

Horrela, hori dena abiapuntutzat harturik, eta futbolaren eta nazio-nortasunen arteko loturaz, eta masa-hedabideen bitartekaritza, oro har, egile honek burututako doktorego-tesiak zilegituta, artikulu honen helburua da Euskal Herriko nazio-auziaren orainaldia kirolaren ispiluaz behatzea. Horretarako, Hegoaldeko bizipenak ez ezik, Ipar Euskal Herriaren egoera ere aintzat hartuko da. Nahiz eta Frantziaren mendeko euskal lurraldean futbolak azken urteetan hala-nolako hazkunde etengabea eduki duen, errugbiaren gizarte-eragina askoz garrantzitsuagoa da bertan. Hain izan da hondarrekoa futbolaren zatia Iparaldean, ezen ia oraindik erabat profesionala edo ogibidea ez den, kasik amateurra baizik (Fernández Monje, 2003: 122-123). Artikulu honen idazkuntzan erabilitako metodologia historia eta soziologia gizarte-zientzien baitakoa da, Euskal Herriaren bilakaera politiko garaikidea futbolaren bitartekoaren bidez kronologikoki behatzen duena. Oroz gain, XXI. mendean futbolari eta nazio-nortasunei uztartutako gertaera nagusietan ezarriko du arreta handiena artikuluak, euskal nazioaren batasun ezaz eta bidegurutzeaz hausnartu nahian.

2. Arloko teoria eta testuingurua: futbola eta euskal nazionalismoa Industrializazioaren gizarte-erlaketari lotuak, Hego Euskal Herrian

Gizarte-zientziek kirola eta futbol-ekitaldia errealitatea aztertzeko moduko bitarteko zilegiak zirela aitortu zutenetik garrantzi nabarmena hartu du mota honetako ikerketa-lerroak azken hamarkadetan. Lehenago, aisialdiaren eremuko izateagatik beheratua bazen ere, gaur egun zientzia-ezagutzazko hainbat diziplinak dihardute futbolaren baitan ikerketa-lanak egiten, horietatik asko gizarte-diziplinen arteko elkarreaginekoak gainera. Christian Bromberger antropologoak dioen moduan, identitate kolektiboak eta etsaigoak adierazteko lehenetsitako eremua da futbola, eta, hain zuzen ere, atxikimenduak bideratzeko eta erakusteko ahalmenean datza haren mundu-mailako ospea (Bromberger, 1998: 59). Eric Hobsbawm historialariak hil aurretik idatzita laga zuen milioika pertsonaren nazioaren komunitate imajinatua 11 jokalariko taldearen deiturapean onenen haragitzen dela dirudiela, norbanako oro sinbolo horren bitartez nazioaz identifikatzeko aisetasuna dela medio (Hobsbawm, 1992: 1). Hori horrela, gizarte-teoriaren hurbiltzetik Richard Jenkinsek (2014: 151) giltzarritzat hartzen dituen identifikazio-tresnetako bat da futbola, «nor nor den» eta «zer zer den» berez ezjakina den munduan moldatzea laguntzen duten horietakoa. Lehian oinarritzen den kultur aldaera izaki, futbola eremu aproposa da politika eta ideologia manipulazio erabiletarako (Boyle eta Haynes, 2000) eta nazioa eraikitzeke erreminta gisara egituratzen da horrenbestez (Billings, 2008: 16), hedabideen kontakizuna dela medio. Dena dela, komeni da Raymond Boylek eta Richard Haynesek (2000: 151) hedabideen bitarteko futbol-ekitaldien erabileraz egiten duten zehaztapena gogora ekartzea. Ikertzaileok oroitarazten dute futboleko egintza identitate-sorkuntza ez dela halabeharrez norabide bakarrekoa, eta diskurtso ofizialari ezarritako erresistentzia ere aintzat hartu behar dela. Hain justu, Espainiako diktaduraren aroan ere agerrarazi zen futbola erresistentzia-bidea ere izan daitekeela, eta, funtsean, baita ikerketa honen ardatzean XXI. mendeaz aipagai

izango diren futbol-gertaera eta kasu enpirikoei dagokienez ere. Ikerketa honetan aintzat hartu da halaber hedabideen bidez gizarteratzen diren kirol-ekitaldiek norbanako askoren nortasunaren eraikuntzan eragin txikia dutela (Bairner, 2001: 170). Hartara, ez da komeni futbol-ekitaldiaren garrantzia gehiegizkotzat hartzea, gutxiestea okerra den neurri berean.

Euskal Herriari dagokionez, Phil Ballen esanetan (2010: 183-184), futbola gailu saihestezina da bertako historia garaikidea aztertzeko. Ukaezina da bederen 1920ko hamarkadatik futbolaren eta nazio-nortasunen arteko uztarpena Euskal Herrian. Espainiaren estatu-nazioaren eraikuntzari, hots, asimilazio edo homogeneizazioko ekimenari, aurre egiteko erreminta sinbolikoa izan da geroko belaunaldietan euskal nortasunarentzat. 1898ko Kolonia inperioaren hondoratzearen ostean, Espainiako estatu-aginteak abaildutako nazio-harrotasuna berrezarri nahi zuen, eta nazio-batasunaren ametsa gauzatu. Estatuaren xede horri kontrajarrita jaiotako euskal eta kataluniar nazionalismoek futbol-ekitaldiaren nazio-nortasunak plazaratzeko ahala baliatu zuten, estatuan inon baino lehenago. Futbola masa-kirol bilakatzea, nazionalismoen norgehiagoka eta prentsa idatziaren loraldia gertakari garaikideak izan ziren (Rojo-Labaien, 2014a: 50). Euskal nazionalismoak ebatzi zuen jatorri arrotzeko futbolaren hedapena gelditu ezin zuenez gero, bere helburuetarako erabili behar zuela, alegia euskal nazio-mugimendua gizartean txertatzeko. Euskal futbolaren estilo bereizgarria asmatu zuten zentzu horretan, gizentasunezko euskal arraza ordezkatzeko zuelakoan. Zehaztu behar da arrazaren kontzeptua eta futboleko jokatzeko eraren bidez nazioa irudikatze saioa ohikoak izan zirela munduan zehar garai horretan. 1920ko Anberesko Olinpiar Jokoetan, euskal futbolarien gehiengoak osaturik zegoelarik, Espainiako nazio-selektzioak bigarren postua eskuratu zuen futbol-lehiaketan. Nazioartean lehiatzen zen estreinako aldia zen, eta futbolaren eragina hauspotu zuen ondorioz Espainian. Bestalde, euskal nazionalismoaren eta futbolaren arrakasta ia elkarrekintzan gauzatu ziren ordutik, futbol-klubak beren inguruko komunitateen ordezkari sinbolikoak bihurtu ziren neurrian. Handik gutxira, 1923an abiatutako Miguel Primo de Riveraren diktadurapean, eta euskal nazionalismoaren ideien ildotik, Euskal Herrian sortu zen estatuko lehen kirol-egunkaria, *Excelsior* izenekoa. *Euzkadi* hedabide-taldearen baitakoa izaki, euskal nazionalismoaren ikusmoldearen bozgorailua izan zen, Primo de Riveraren diktadurak politika eta kultur guneak itxi zituen garaian (Castañón Rodríguez, 1993: 47).

Hori horrela, nazionalismoen norgehiagokaren testuinguru horretan, Euskal Herrian, futbolak euskal pilota gainditu egin zuen gizartean. Olatz González Abrisketa antropologoak sortezko Euskal Herriko kirola euskal nortasunaren erdiguneko sinbolo gisa definitu zuen. Abrisketaren hitzetan, frogatu ahal izan den bost mendeko historian, eta batzuek aspaldiko iraganeraino atzeratzen duten iraupenean, euskal pilotak errito- eta estetika-forma bereziak hartu izan ditu, lotura estua daukatenak euskal herritar askok beren buruaz daukaten ikuspegiarekin eta euskal herritarrek besteek ikusita duten irudiarekin ere (González Abrisketa, 2005: 15). Inondik ere, zehaztapenik egiteke onargarria da arrazoibide hori, baina futbolarekin alderatuta, ñabardura bat gehi dakioke. Esan nahi baita, Mike Croninek Irlandako joko gaelikoen garrantziaz mintzatzean argudiatu zuenaren maila berean (Cronin, 1998: 171), pilota Euskal Herriarentzat esanahi bereziko kirola dela, bere kultur ondasuna

hezurmamitzen duelako. Hala ere, nortasunezko benetako azterketa eta mailaketa besteen kontra neurtzean gertatu ohi da, Croninek egoki kontrajartzen duenez. Litekeena da horretan ezartzea hain justu futbolak berehala Euskal Herrian lortu zuen ospea, Espainiako futbol-klub ordezkatzailerekin gaitasuna konparatzeko ahala eskaintzean. Euskal pilotak ezina du hori egitea, ez eta Croninek azalduari jarraikiz, joko gaelikoek ere, futbolaren mailako kirol global eta entzutetsuak ez izateagatik.

Futbolarekin batera, eta euskal pilotaz gaindi, errugbia da Euskal Herria osotasunean hartuta, talde-nortasunak haragitzean garrantzi handia eduki duen taldekako kirola. Halaber, Euskal Herriaren XX. mendeko historiaren ikuspegia osatzen laguntzen du, futbolaz gain. Hori horrela, aipatu beharra dago futbolaren eta errugbiaren arteko XIX. mendeko zatiketak Euskal Herriaren errepresentazio sinbolikoan Lehen Mundu Gerraz geroztik izan zuen eragina. Izan ere, Hego Euskal Herrian futbola euskal nortasunaren agerbide lehenetsitakoa bailitzan ospetsu egin zen, eta Ipar Euskal Herrian, berriz, errugbiak bereganatu zuen, ñabardurak ñabardura, funtzio hori, eta horrenbestez ezinezko bihurtu zuen futbolaren bitartez euskal lurraldearen osotasuna, Euskal Herria, irudikatzea. Litekeena da, John Walton historialariak artikulu-egile honi adeitsuki azaldu zioenez, XX. mendearen hasieran Erresuma Batutik mugako bi aldeetara etorri ziren etorkinen jatorri eta gizarte-klaseen ezberdintasuna funtsean erabakigarria gertatzea horretarako. Hala, Bilboko industriari lan egitera joandako beharginak futbola berekin ekarri bazuten ere, Biarritz inguruko kostaldeko turismo-jomuga goiztiarrean aisialdiko egonaldiak egitera joan ohi ziren Londres inguruko klase ertaineko kideek errugbia zabaldu zuten. Futbola ordurako beheko klaseen isla zen britainiar irltako sorterrian, eta goragoko klaseek errugbia hobesten zuten ondorioz. Hala, litekeena da klaseen ezberdintze-borondate hori Euskal Herriko kirolen zatiketa garrantzitsuaren iturburuan egotea (Rojo-Labaien, 2014a: 61). Halaber, eta are funtsezkoagoa da izatez, eragin zuen estatuen arteko mugaren bi aldeetan euskal komunitatea ordezkatzeko gizarte-eta kirol-ekitaldi ezberdinak egituratu zitezela. Horrekin batera, muga sinbolikoa indartu zuen, geroko belaunaldietan eguneroko mintzagaiak ezberdinak izango baitziren Iparraldean eta Hegoaldean.

John Waltonek Euskal Herrian bi kirolek sortutako zatiketaren zergatiak emandako azalpenari zilegi deritzot, hain zuzen ere, munduan gertatutako joera antzekoa hautematen baitu Euskal Herriaren kasurako. Antzeko argudioez arrazoitzen du Sébastien Darbon antropologoak mundu-mailan futbolak eta errugbiak eginiko banaketa, eta ondorioa. Haren hitzetan, munduan zeharko futbolaren hedapenak, errugbiarenari kontrajarrita, gizarte-klaseen araberrako zergatia izan zuen, hasieran bederen. Darbonek egoki argudiatua da britainiar inperioaren muga zabalaren barruan lekualdatutako britainiar norbanakoak kolonia-kudeatzaileak edo erantzukizuneko jendea zirela. Prestigiodun unibertsitateetan heziak izandakoak ziren, eta errugbian edo cricketean jokatzen zuten aisialdian, goiko klaseen nagusigoa islatzen zuten kirolak izateagatik. Britainia Handiko mugez gaindi joandako immigranteak, oster, eta britainiar eragina inperioaz haratago zabaldu zutenak, salerosketan edo industriari aritzen ziren beharginak ziren, goi-mailako heziketarik gabekoak eta aisialdian futbolekin jokatzen aritu ohi zirenak. Ondorioz, Darbonek mundurako, Waltonek Euskal Herriko antzeko moduan ondorioztatzen du, gizarte-klase

faktore horiengatik funtsean ezarri zela futbol-ekitaldia Hego Amerikan eta Europan, eta askoz gutxiago India edo Australiaren gisako britainiar inperioaren barruko behinolako lurraldeetan (Darbon, 2008: 95). Herrialde horietan goi-klaseekin uztartutako errugbia eta cricketa prestigiodun kirolak gailendu ziren. Futbolak herri xehearekin egin zuen hartu-emanak mundu-mailako zabalpena emango zion.

Horrez gain, Waltoni jarraikiz, industrializazio-prozesuak Hego eta Ipar Euskal Herrian eragin zuen hausturak ere eragin nabaria eduki zuen futbolaren eta errugbiaren arteko bereiztean, eta, halaber, euskal nazionalismoaren gizarte-hedapen ezberdinduan ere bai. Bilboko itsasadarren industriagunearen testuinguruan, gizarte-babes handiko euskal nazionalismoa eta futbola garatu ziren. Ipar Euskal Herria, ostera, industriagunerik gabe, turismo goiztiarraren jomuga eta nekazaritza-eremua izango zen, eta euskal nazionalismoarentzat nahiz futbolarentzat hainbeste jarraitzailerik edo sostengurik gabeko ingurumena. Frantziaren mendeko hiru euskal probintziek Frantziako Iraultzaren ostetik galduak zeuzkaten Erdi Arotik eratorritako lege eta eskumenak, euren foruak alegia, baina Garat anaien Ipar Euskal Herriko berezko departamendua sortzeko ekimen aitzindariak haratago, ez zen bertan euskal nazionalismorik luzaroan egituratu. Zentzu horretan, litekeena da industrializazio ezak eragin zuzena izatea euskal mugimendua ezarri ez izatean, eta aldi berean futbol-ekitaldiak Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan gizarte-eraginik ia ez edukitzean.

Izan ere, aintzat hartu behar da arrazoibide honetan, estatu-nazioen proiektuen mundu osoko ezarpena eta kirolen hedapena aldiberekoak izan zirela, Industria Iraultzaren inguruan izan ziren eraldaketan harira. Munduaren mendebaldetzea indartu zuten nazionalismoek eta kirolek. Estatu-nazioa mundu osoan gizarte-antolakuntza politikorako oinarri bilakatu zen, eta kirol-ekitaldiak hurrena, futbola bereziki, estatuok elkarren artean lehia eta alderaketa sinbolikoan haragitzeko eremu. Norbert Elias kirolaren soziologiaren aitzindariak argudiatzen du industrializazioak eta hiritartze-prozesuak eragin zuzena izan zutela aisialdiko ekimenen garapenean, eta are gehiago, industria nahiz kirola europar gizartearen eraldaketa sakonagoen ispiluak izan zirela (Elias, 1989: 186). Kirol berriok araudietan eta lehiaren oinarrituta zeudelako, aurretiazko usadiozko jokoekin haustura eragin zuten (Darbon, 2008, 1), eta futbolak, norbanakoaren eraginkortasunaz batera, industria-munduaren irudira, haren ekoizkin historikoa izaki, elkartasuna, zereginen zatiketa eta talde-plangintza balioetsi zituen (Bromberger, 1998: 43). Futbolaren nahiz errugbiaren sortzeko kokapena munduko lehen Industria Iraultzaren sorleku bera izan zen, Ingalaterra ipar-mendebaldeko Lancashire eskualde giltzarria, Bolton eta Blackburn hirien arteko ardatza. Bestalde, Eric Dunningen esanetan, lurraldeen arteko kirol ordezkatzailaren eskaria ezina zen industria aurreko gizarteetan azaleratzea, nazio-batasunaren gabeziagatik eta garraio bide eta komunikazio-bitarteko urriengatik, ez zelako araudi parekorik ez eta urrundutako inguruetako kirolariak alderatzerik ere (Dunning, 1989: 264). Zentzu berean, nazioen sorrera modernismoaren hurbiltzetik aztertzen duten ikertzaileen arabera, nazionalismoen sorkuntzaz azken hiru mendeetako gizarte-baldintza berezietan kokatu behar da nazioen iturburua, industria-kapitalismoaren eta hiritartzearen bidetik, besteak beste. Goi-kultura estandarizatu, homogeen eta zentrotik eutsiak eratzea ahalbidetu zuen aroan lekutzen du Ernest Gellnerrek

(2009: 71). Horrenbestez, Euskal Herriari dagokionez, Hegoaldeko industria-ustiapien bortitzaren eta Iparraldeko gabeziaren arteko aldeak eragin bikoitza eduki zuen. Batetik, futbolaren eta errugbiaren mugaz bi aldeetako ezarpen ezberdinak sinbolikoki Euskal Herriaren lurraldeen arteko zatiketa handiagotu zuen. Bestetik, Hegoaldean Industria Iraultzak euskal nazionalismoaren hedapena lagundu bazuen ere, Iparraldean ez zen horrelako bultzadarik izan, eta euskal mugimendua ez zen bertan sustraitu. Gainera, britainiar kirolak Euskal Herrian ezarri zireneko XX. mendearen hasierako garai horretan, Lehen Mundu Gerran Frantziaren nazioaren alde borrokatu izanak Iparraldeko euskal herritarrak frantsestu egin zituen, Eneko Bidegainek gizarte-zientziazko ikerketan argitu zuenez (Bidegain, 2014).

Espainiari dagokionez, Miguel Primo de Riveraren diktadura lehenik, eta frankismoa handik gutxira, hamarkada askotan ahalegindu ziren Espainian estatua eta nazioa bateratzen, futbolaren helmen sinbolikoa ere helburu horretarako baliatuta. Jacinto Miquelarena kiroleko informazio- eta propaganda-zuzendariak 1938ko *Marca* kirol-egunkariaren lehen alean iragarri zuen —Gerra Zibila artean amaitu aurretik— frankismoak futbolarekin erdietsi nahi zuen helburu premiazoena: Espainiako Bigarren Errepublikaren urteen bitartean futbol-zelaietan nahiz harmailetan adierazi zen estatu nazioaniztunaren irudia iraultzea, eta erabateko batasunezko aldartea ematea Espainia estatu-nazioari (Miquelarena, 1938). Bereziki, 1950eko hamarkadan sartuta ohartu zen diktadura kirolaren sona bere izatea zilegitzeko eta Espainia elkartua irudikatzeko erabiltzearen onuraz, eta batez ere, telebista-hargailuak etxeetan hedatzen hasi zirenean. Hala ere, Euskal Herriko eta Kataluniako futbol-harmailak izan ziren nazio-nortasun azpiratuen sinboloak berpizteko eremua 1960ko hamarkadako erregimenaren irekiera baliatuz, (González Aja, 2002: 200). Argigarria da horrela, futbolaren eta frankismoaren arteko lotura sakonki aztertu zuen Duncan Shaw-en gogoeta hau: futbolaz frankismoak egindako erabilera politikoa bere nahien aurkako norabidean eraldatzen hasi zen azkenean (Shaw, 1987: 186, 192). Esan nahi baita diktadura-garaian eta haren ondorioz, inoiz ez bezala Espainiaren batasuna burutu ordez, frankismoa halabeharrez malgutu zenean, estatuko aniztasuna are indar gehiagoz berrezarri zela futbol-harmailen aitzindaritzaz.

Izan ere, Francisco Franco diktadorea hil eta monarkia-ereduko demokraziara Espainiak izan zuen igarobide konplexuan diktadurak desagerrarazi nahi izan zituen nazio-auziak berragertu ziren. Diktaduraren saioak ez zuen arrakasta izan, eta gero, estatuaren nazio-errealitatea kolokan jarria izan zen, gainera. Futbol-liga txapelketak 1978ko Konstituzioak jaso ez zuen Espainia nazioaniztuna islatu zuen, frankismo aurreko ligaren lehen urteetan gertatu antzera (Llopis Goig, 2008: 7,8). Euskal taldeak, eta Bartzelona, Kataluniako talde ordezkariz gisara, nazio berezituaren pertsonifikazio bihurtu ziren Espainiako estatu-nazioaren lurraldetasuna irudikatzen jarraitzen zuen lehiaketan. Frankismoaren aurretik sortu zen euskal nazio futbol-selektzioa 1979an berrezarri zen, euskararentzat dirua biltzeko «Bai Euskarari» ekimenarekin lotuta lehenengoz. Kataluniako nazio-taldeak geroago hartu zuen lekukoa. Biek adiskidantza-partidak jokatzeko aukera izango zuten bakarrik, jakina denez. Izan ere, nazioarteko kirol-erakundeek, salbuespenak salbuespen, estatu-nazioen ordezkaritzan oinarritutako futbol-lehiaketak egituratu zituzten FIFA 1904.

urtean sortu zenetik. Nazionalismoen norgehiagoka biziaren testuinguruan jaiotzen erakundeak eta futbolak hasieratik eduki zuten izaera politikoa horrenbestez, Paul Dietschy historialariak dioten modura (2010: 105). FIFAk herrialde bakoitzeko futbol-federazio eta selekzio bakarria aitortzea erabaki zuen orduz geroztik (Wahl, 1997: 60), eta horren bidez, estatu-nazioen eredia sendotu zuen. Erresuma Batuko estaturik gabeko nazioak salbuespenak izan ziren, FIFA sortu baino lehenago futbol-federazioak eduki izanaren aitzindaritzagatik abantaila berezia zutelako. Futbolari estatu-nazioen ereserkien eta gainerako sinboloen gordailu izatea Lehen Mundu Gerraren osteko garaitik datorkio, mundu-mailako masa-ekitaldi bihurtu zenetik.

Hori horrela, futbol-ekitaldiak estatu-nazioen aingura bilakatu dira XXI. mendean hasieran. Globalizazioaren hazkondeak eta modernitate-garaitik eratorritako ainguren ahultzeak botatako erronkari aurre egiteko bitartekoa da nazioarteko futbola estatu-nazioentzat. Esaterako, eta esan genezake batik bat, Espainiaren kasuan. Nazioaren imajinatutako komunitatea (Anderson, 1991: 6) herritarren begietara arazoizkoa egingo duten batasunezko sinboloen gabeziagatik, kiroleko ordezkariak are garrantzi handiagoa du Espainiaentzat. Modernitatearen euskarrien inguruan hedatu ziren kirol-ekitaldia, futbola nagusiki, nahiz estatu-nazio eredia munduan zehar. Besteak beste, modernitate-garaiaren osagaiak izan ziren industria-ekoizpena, arrazionaltasuna, zientzia positibista, objektibotasuna eta erabateko baieztapenen sinesmena, ordena eta egonkortasuna. XXI. mendeko gaur egungo garai ezjakina azaltzeko erabiltzen den postmodernitate esamoldeak erreferentzia egiten dio ziurtasun horiek guztiak ezbaian jarri dituen hurrengo denborari (Jarvie, 2006: 58). Hala, nabarmendu behar da modernitatearen beste ondasun batzuk ez bezala, futbolak tinko dirauela, are eta indartsuago gainera, aldaketazko aro berrian. Espainiako futbol nazio-taldearen berealdiko garaipenenaldiak, 2008 eta 2012 urte bitartekoak, aurrekaririk ez zeukan espainiar nazio-harrotasunezko ospakizunak eragin zituen, eta nazio-nortasunaren eta haren ikur eta sinboloen eraberritzea. Nolanahi ere, gertaerok futbolaren nazio-aldarrikapenen mugak ere agerrarazi zituzten. Ekonomia- eta politika-krisialdiaren bat egiteak, eta bere barneko estaturik gabeko nazionalismoen indar-hartzeak, aurretiaz inoiz baino nabarmenago jarri dituzte kolokan 1978ko Konstituziotik eratorritako Espainiaren nazio-erakundetzearen zutabeak (De la Madrid, 2013: 165). Ataka horretan, futbolaren bidezko nazionalismo-adierazpen jendetsuek ere ez dute lortu estatu-nazioaren proiektua irmotzerik, ez eta euskal eta kataluniar nortasunak azpiratzerik ere.

3. Espainiako nazio-erakuntza eta erresistentzia 2008-2012 aldiko futbol-ekitaldietan

Espainiako selekzioak irabazi zituen bi Europako Kopako lehiaketek eta Munduko Kopak nazio-harrotasunezko elkarretaratze eta ospakizun zabalak eragin zituzten, nazio-sinboloz eta kantuz girotuta. Elkarren jarraian irabazi zituen futbol-selekzioak 2008ko Austria eta Suitzako Europako Kopa, 2010eko Hegoafrikako Munduko Kopa eta 2012ko Ukrainako eta Poloniako Europako Kopa. Frantziako nazio-taldeak sorterrian 1998an irabazi zuen Munduko Koparen ospakizunak aurrekaririk gabeko nazio-ekitaldi bateratzailea bideratu baldin bazuen ere, Espainiari dagokionez,

2008 eta 2012 bitarteko nazio-nortasunezko bilgune horiek inoiz gertatu gabekoak izan ziren. Alejandro Quirogak argudiatzen duen moduan (2013: 1-2), lehenago ez gertatu izanaren arrazoibideak bi hauek izan daitezke. Alde batetik, frankismoaren lau hamarkadako muturreko nazionalismoak zilegitasuna kendu zien jendarteko espainiar harrotasun-aldarrikapen agerikoei. Bestalde, Katalunian eta Euskal Herrian bereziki, espainiar estatu-nazioaren eraikuntzaren aurka zegoen gizartearen zati handia, hauteskundeetako emaitzei erreparatuz gero, behinik behin. Horrenbestez, eragozpen horiek gainditu zituztela aintzat hartuta, ezina da futbol-garaipenek Espainian erdietsitakoa gutxiestea. Estatu-nazioa irudikatzeko beste ohiko baliabideek ahal izan ez zutena, telebista-emanaldiek igorritako futbol-ekitaldiak posible egin zuen. Juan Carlos De la Madrid ikertzaileak egoki arrazoitzen duen gisara (2013: 203), Espainiako nazioaren usadiozko aingurak ahulduta daudenean, futbola babesleku erakoa da herritarrentzat, nazio-taldearen garaipenak herrialde osoarenak bailiran ikusarazita, metonimia moduko irudia eginaz. Euskal Herrian eta Katalunian ere, urte askotan ikusi gabeko espainiar nazionalismoaren ospakizunak gertatu ziren, Espainiako estatuko beste lurraldeetan baino zinez bakanagoak izan baziren ere. Bada, futbolarik erdietsi al zuen 1812ko Cadizko Konstituzio liberaletik Espainian abiatutako estatu-nazioaren batasuna egitea? Miguel Primo de Riveraren eta Francisco Francoren bortxazko diktadura baterazleek lortu ez zutena kirolaren izaera sinbolikoak, *soft power* deritzonak, burutu ote zuen? Hain justu, Munduko Koparen inguruko futbol-gertaera garaikideetan aurki daiteke erantzunaren ezezkoa. Alabaina, horrek ez du erakusten espainiar nazioarentzat nazioarteko garaipenen helmena garrantzirik gabekoa gertatu zenik. Espainiako Estatuaren ordezkariak lortutako kirol-arrakastak nazioaren erregenerazio sinbolikoa posible egin zuen (Catalá Oltra, 2012), nazioa agerikoa egitea eta biziberritzea ahalbidetu zuena. Garrantzia handia zuen, hortaz.

Hala eta guztiz ere, esan bezala, Espainiako nazio-selektzioak aurrekaririk gabeko arrakasta lortu zuen garai berberean, futbolearen ere, 2009ko, 2012ko eta 2015eko Espainiako Errege Koparen finalek agerrarazi zuten Espainiako Estatuaren batasun-gabezia. Adiera politiko handikoak izan ziren Athleticen euskal jarraitzaileek eta Bartzelonaren futbolzale kataluniarrek, gehiengo handiz, estatuko bi sinbolo nagusiren aurka bi partiden atarian eginiko txistu eta protestak. Estatuaren nazio-ereserkiari eta monarkiari txistua jo zieten bertaratutako milaka jarraitzailek, erregearen estatu-agintaritzarekin harreman sinboliko handiena duen futbol txapelketaren ekitaldian. Are gehiago, Espainiako hedabideek arretarik handiena ezartzen dioten egun bakarreko Espainiako futbol-ekitaldi garrantzitsuena den neurrian, orduan gertatutakoak gizarte-oihartzun handia izan zuen. Esan nahi baita, Espainiaren nazioarteko kirol-garaipenek, kanpoko erkaketan, estatu-nazioaren harrotasuna sendotu bazuten ere, Errege Koparen finaletan zale euskal herritarrek eta kataluniarrek adierazitako protestek estatu barnean itxi gabeko nazio-auziez ohartarazi zutela. Hori guztia gertatu zen gainera, 1930eko hamarkadatik Mendebaldeko Europak jasan duen ekonomia-krisi handienarekin batera aldi berean, eta osoki Espainia zartatu duenean. Hain justu, hondoratze ekonomikoak are gehiago erasan zuen estatu-nazioaren zilegitasuna, arazoei irtenbidea emateko atakan. Bide batez, bi mendetan itxi gabeko nazio-gatazken ebazpenaren premia bizitu egin zuen Espainian.

3.1. Estatueta oinarritutako nazioarteko futbolaren egitura politikoa betikotua globalizazioan

Rafael Benitez entrenatzaile espainiarrak, bertako nazio-taldearen aro garaitsuaren aurretik, era honetara azaldu zuen talde horren eraginkortasun ezaren arrazoia. Haren hitzetan, espainiar nazio-selekzioa beste taldeetatik ezberdintzen zuena adimena zen. Alegia, Argentinak, Uruguai eta Frantziak, besteren artean, hots, nazioarteko garaipenak zituzten ordezkariak, abertzaletasun-sentipen indartsuagoa izatea (cfr. Gómez, 2007: 100). Benitezek, futbol-prestatzailea denaren ikuspegitik, kirol-eraginkortasunaz gaindiko azalpena eman zion Espainiaren iraganeko garaipen-gabeziari. Beste modu batera adierazita, herrialdean, gizartean zegoen batasun eza, eta aberri-atxikimendu falta islatzen zen nazio-taldean Benitezen hitzetan, eta, ondorioz, ezinezkoa ei zen beren aberria defendatzeko elkartuta jarkitzen ziren selekzioei gailentzea. Futbol hamaikako taldea eta gizartea estu lotzen zituen entrenatzailearen aburu horrek. Kataluniako jokalariez hein handian hornitutako selekzioak joera galtzailea irauli zuenean, hain justu aurkako arrazoibidea eman zioten hedabideetatik. Esan nahi baita Espainiaren batasuna irudikatzen zuela erkidego ezberdinetatik joandako jokalariek bat eginik beste ordezkariak aurka lortu zuten arrakastak. Orduan ere, metonimiaz, herrialde osora barreiatu zuten hedabideetatik taldearen eta gizartearen osasuna eta patua.

Bestalde, 2012an Ukrainan eta Polonian Europako Kopa irabazi ondorenean, eta Espainiako selekzioaren beheraldia hasi zenean, iraganeko ezbaiak berragertu ziren, askatu gabeko nazio-auziekin harremanak. Euskal Herriari dagokionez, aipatzekoa da Markel Susaeta Athleticetako jokalaria euskal herritarra Espainiako selekzioa lehenengoz deitu zutenean sortu zen polemika, 2012ko azaroan. Espainiako nazio-selekzioak Panamaren aurka jokatu zuen adiskidantzako neurketaren atariko prentsaurrekoan egin zituen adierazpenek sorrarazi zuten eztabaida hedabideetan. Erdilariak adierazi zuen nahiz eta partida nazioarteko lehiaketa bateko neurketa ez zen, garrantzitsua zela. Espainiako futbol-federazioak taldearen ospeaz diru-eteekin lortzeko asmoak bultzatuta antolatutako partida zen izatez. Hala, neurketaren garrantzia argudiatzeko, futbolariak «gauza bat» ordezkatzeko zutela arrazoitu zuen, zalantzati, Susaetak, «Espainia» izena ahotan izan gabe. Esan hori gogor kritikatu zuten hedabideetatik (*El Mundo*, 2012). Horrela, Katalunia eta Euskal Herriak Espainiako nazio-taldea ordezkatzeko zuten norbanakoen aberri-atxikipena berriz hasi ziren ezbaian jartzen.

Katalunian independentziaren alde abian jarritako prozesuaren baitan, 2014ko irailaren 11n, Kataluniako nazio-egunean, Gerard Piqué Bartzelona taldeko atzelariak autodeterminazioaren eskubidea galdegiten zuen manifestazio jendetsuan parte hartu izanak polemika berpiztu zuen, Espainiako hedabideen eskutik. Piquék deitoratu zuen ordu arte 11 urte zeramatzala Espainiako selekzioan parte hartzen eta haren alde eginahalak egiten, baina bestelakoa zela bera kataluniarra sentitzearena (López, 2014). Xavi Hernandez eta Cesc Fabregas espainiar selekzioa kataluniar kideek ere berretsi zuten Katalunian estatua izan ala ez erabakitzeko bertako gizartean herri-galdeketa deitzeko eskubidea izan behar zuela. Hedabideek beste behin ere salatu zuten Euskal Herriak eta Kataluniatik espainiar selekzioa joandako

futbolarien ustezko nazio-atxikimendu gabezia. Futbolariak jarrera espainiarra izan zezatela galdegiten zuten, hartara. Kontraesana da hedabide horietatik Euskal Selekzioaren eta Kataluniaren adiskidantza-partidei buruz aritzean futbola eta politika nahastea salatzen dutela. Halaber, paradoxa zentzu berean jarraituta, askatu gabeko kontraesana da Espainian indarrean dagoen kirolaren legeak behartzen dituela jokalaria nazio-selekzioaren bitartez Espainia ordezkatzera (10/90 legea kirolarena, urriaren 15ekoa). Futbolariak, beraz, legez behartuta daude nazio-taldean jokatzen, prestatzailearen gonbita jasoz gero. Iritzi publikoak gainera, hots, hedabideek, behartzen dituzte espainiar abertzaletasunez aritzera.

Areago, futbolariok ez daukate nazioartean Espainia ordezkatea ez den beste abagunerik, berezko nortasun abertzalea erakustea utziko liekeena. Izan ere, hein handi batean Espainiako Estatuaren erantzukizun politikoa da Euskal Herriko eta Kataluniako nazio-taldeei futbol-ekitaldi ofizialetan parte hartzea galaraztea. Egiak, nazioarteko futbolaren antolaketa, sortzez eta espirituz, estatu-nazioen ordezkartzan oinarritua dago, baina FIFAk hala-nolako bidezidorra jarria du oraindik estaturik ez duten nazioentzat. Hala, FIFAn 2012ko legediaren 10. artikuluan, lehen paragrafoan, federazio kideen onarpenaz hau zehazten da: FIFAk nazioartekak aitortutako estatu burujabe bakoitzeko federazio bakarra onartzen du bere baitan, bosgarren eta seigarren paragrafoetako salbuespenekin. Bosgarren paragrafoan Erresuma Batuko lau elkargo bereiziak eta haien nazio-selekzioak onartzen ditu. Seigarren paragrafoan honakoa dio: FIFAn sartzeko eskaera igorri ahal du oraindik independentzia eduki ez, eta bere gaindiko estatuko FIFako federazio kidearen oniritzia aurkezten duen erregio baten futbol-elkargoak (FIFA, 2012). Faroe Irlen kasua da adibidez, Europan. Nahiz eta Danimarkaren agintepean egon, Munduko Koparako eta Europako Koparako sailkapen-faseetan parte hartzeko ahalbidea ematen dio estatu horrek. Nazio Batuen Erakundean (NBE) estatu modura egon gabe FIFAn onartuta dauden selekzioetako gehienak, bakandutako uhartediak eta europar estatuen koloniak dira (Rojo-Labaien, 2014a: 35).

Hortaz, estatuen baitan sortutako kirol-egitura horrek bestelako ordezkariak ahalbidetzen ditu, baldin eta horien gaineko eskumena duten estatu kideek onespina ematen badute. Gardena da, Espainiak eta Frantziak, Euskal Herriari gagozkiolarik, hori onartu ez, eta ahaleginak egiten dituztela estatua ez duten nazioei ordezkartza sinbolikoa debekatzeko. Esteban González Pons PP Alderdi Popularreko eledunak argitu zuen zergatia: «Munduaren begietara Espainiak azkar utziko zion nazio bakar gisa hautemana izateari, kirol-eremu bat kirol-selekzio askotan banatuta zanpatuko zuen unetik bertatik» (cfr. Gómez, 2007: 99). Are gehiago, Espainia ahalegindu zen bere lurraldearen zatitzat aldarrikatzen duen Gibraltar britainiar lurmuturraren nazioarteko parte-hartzea ere eragozten. UEFAk hasieran sarbidea ukatu egin zion Gibraltarri, 2001ean bere legedian jarria zuelako NBE Nazio Batuen Erakundeko estatua eduki behar zuela federazio eta selekzio batek nazioarteko lehiaketetan aritzeko. Aitzitik, Kirola Arbitratzeko Epaitegiak arrazoia eman zion Gibraltarren helegiteari, hark UEFAn sartzeko eskaera baldintza hori ezarri aurretik egin zuelako. Hortaz, Gibraltar 2014an estreinakoz nazioarteko txapelketa baterako sailkatze-fasean jokatzen hasi zen, Frantzia 2016an egingo den Europako Kopan jokatzen lehian, hain justu. Lehen partida Portugalgo Algarven jokatu behar izan zuen,

FIFAREN eskakizunen mailako estadiorik ez baitzuen bere lurralde txikian. Poloniak 0-7 irabazi zion, eta horrela, nabarmen utzi zuen oso gertagaitza zela selekzio berria Europako Koparako sailkatzea. Hala ere, kiroleko emaitzaz haratago, nazioartean burujabe agertzea garaipena zen Gibraltarrentzat. Aldi berean porrota zen Espainiarentzat, hain justu Gibraltar funtsean herrialde burujabea bailitzan azaltzen zelako. Dena den, globalizazio-fluxuen eraginagatik estatuaren erabakimena geroz eta murriztagoa den aldian, futbolaren mundu-mailako etorriak zilegitasun sinbolikoz hornitzen du erasanda dagoen estatu-nazioa. Futbol-negozioarentzat onurakoa da halaber estatuaren sustraitzen den antolaketa betikotzea. Egoera horrek, zirrikituak zirrikitu, eta zernahi arrazoibide eginik ere, ia ezinezko egiten du Euskal Herria gisako nazioen parte hartzea, gaur egungo futbol-eredua irauli ezean. Areago, estatu-nazioena da nazioarteko ordezkariak ez ezik, haien futbol-federazioaren bitartez, estatu-mailakoak diren txapelketa nagusiak antolatzeke eskumen osoa ere.

Hala, arrazoizkoa da esatea, besteen mailako nazio-talde ordezkariaren ezagatik, Realaren eta Athleticen gisako klub nagusiek hartu dutela euskal nazio-nortasuna ordezkatzeko ardura futbol-zelaian, eta Espainiako lurraldetasuna oinarri duten lehiaketetan. Hasieran, 1920ko eta 1930eko hamarkadetan, joko-moduak euskal arrazaren ustezko gailentasuna islatzen zuela aldarrikatzen zuten euskal futbol-talde goiztiarrek (Rojo-Labaien, 2014a: 60). Hala ere, Lehen Mundu Gerra osteko garaitik, futbola Espainian gizarte-ardatz bihurtu zenetik, Athleticek euskal jokalariek bakarrik zelairatzeko jarrera bereizgarria hartu zuen (Llopis Goig, 2008: 60). Gainerako euskal taldeetan ere sustraitu zen usadio hori, eta, ondorenean, gehiengoz euskal futbolariak zelairatzeko politika bertako komunitatearen bereizgarri bilakatu zen, gizartearen ordezkariak zuzena egiten zuena. Jose Mari Amorrortu Athleticetako kirol-zuzendari eta Euskal Selekzioaren prestatzailearen hitzetan, gaur egungo munduko futboleant parekorik ez duen kirol-politika hori «identitate sortzen duen filosofia da, partaidetza-sentimendua eta leialtasun handia eragiten duena, eta tradiziozko eta modernitateko balioak elkartzen dituena» (cfr. Rojo-Labaien, 2014a: 87).

Futbola, beraz, Espainiaren estatu-nazioaren saio bateratzaileen aurrean, euskal nazio-nortasuna adierazteko babestokia izan da historian euskal nazio-nortasunarentzat. Aitzitik, futbolaz euskal nazioa bateratzeko gaitasuna aski murriztagoa izan da. Barne-gatazkek ezaugarritu dute sarritan euskal nazioa, eta, ildo horretan, futbol-ekitaldian ere, elkartasunak baino gehiago. John Walton historialariak gogora dakar, adibidez, hasieratik Athleticen eta Realen lehia egin zutela euskal joko mota gogorraren bitartez nazionalismoaren ikurra izateko. Beraz, futbolaren lehia-izaerako garapenak hiri eta probintzien arteko bereizketak indartu zituen, nazio elkartua eraiki beharrean (Walton, 2011: 458-459). Horrek ez du esan nahi inoiz euskal taldeen batasuneko ekimenik izan ez denik, Euskal Herrian ere futbolak barne-gatazka adierazten duela baizik. Ezagun da, euskal taldeon arteko hartu-emanaren adierazgarri, Realeko eta Athleticetako jokalariek 1976ko partidaren atarian ikurrina eskuetan jendaurrean atera izana, oraindik legeztatzeke zenean. Bestalde, euskal nazio-selekzioaren gaineko eztabaidak batasunik gabeko euskal nazioaren izaeraren lekuko dira.

3.2. Euskal selekzioaren ezintasuna euskal nazioaren egoera konplexuaren adierazgarria

Euskal selekzioak 1936ko gerrako testuinguruan European eta Hego Amerikan eginiko partida-birak Euskal Herriaren egoera ezagutarazteko propaganda-funtsa nahiz euskal errefuxiatuen alde dirua lortzeko zeregina zuen (Gotzon, 1998: 45). Bidenabar, futbol nazio-selekzioa identifikazio-ardatz bateratzaile bihurtu zen (Unzueta, 1999: 164). Euzkadi lehenengo autonomia-lurraldearen izendapen berdina eta ikurrinaren koloreen araberrako janzkera hartu zuen. Frankismoaren lau hamarkadako etenaren ostean, 1979an berrezarri zen euskal selekzioa, aldi horretan euskararen alde dirua biltzeko helburuarekin antolatutako partidaren egokieran. Hartara, nabarmendu behar da 1990eko hamarkadan jauzia izan zela euskal selekzioak nazioarteko txapelketetan jokatzeko eskubidea aldarrikatzeko. 1993ko Gabonetan adiskidantzazko partidak jokatzeko usadioa abian jarri zuen, eta urteroko maiztasunak ahalbidetu zuen nazio-taldearen aldeko aldarria indartzea. Hala, ESAIT Euskal Selektzioen Aldeko Iritzi taldea, futboleko ez ezik beste kiroletako euskal nazio-ordezkaritzak ofizialak izatea galdegiten zuena, 1996ean sortu zen. Ildo berean, 1998an, Eusko Legebiltzarrak EAJ, EA, HB eta IU alderdien botokoekin, gehiengo osoarekin, onartu zuen Kirolaren Legeak zioen euskal federazioei bakarrik zegokiela EAEren kirol-ordezkaritza egitea estatuan nahiz, bereziki, nazioartean ere (Gomez, 2007: 96). Hori horrela, lege horren izaera bateraezina zen Espainiako lehen aipatutako 1990eko Kirol Legearen ahal gainjartzailearekin, hari jarraikiz Espainiako federazio eta kirol-selektzioei zegokielako nazioarteko lehiaketetan Espainiaren estatu-osotasuna ordezkatzea. Ondorioz, Jose Maria Aznarren gobernuak konstituzio-helegitea jarri zion Eusko Parlamentuak gehiengo osoz hartutako ebazpenari. Auziaz epaia ematea luzaroan atzeratu zuen Konstituzio Auzitegiak. Bitartean, 2003an, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren hiruko gobernuak —EAJk, EAK eta EBk osatutakoak— onartu zuen estatutu politiko berriaren proposamenak —Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz onartuak— antzeko gogoeta jaso zuen. Aurreikusten zuen Espainiako Estatuak babestu eta, areago, sustatu egin beharko zuela Euskal Herriko nazioarteko ordezkaritza (Eusko Jaurlaritza, 2003). Nolanahi ere, aski jakina denez, Espainiako Kongresuak baliogabetu egin zuen lege-bilduma proposamena. Esan daiteke Kirolaren Legeak amaiera antzekoa izan zuela. Konstituzio Auzitegiak 2012an ebatzi zuen Euskal Herriko selekzioek nazioartean parte hartu ahal dutela, baldin eta kirol horietan espainiar federaziorik ez bada, eta kirolaren nazioarteko ordezkaritza egiteko estatuaren eskuduntza ez bada erasaten (cfr. EFE, 2012). Funtsean, EAE Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Legea indargabetu zuen, eta nazioarteko ordezkaritzan estatuaren indar hegemonikoa oroitarazi.

Euskal selekzioak, nahiz eta berez EAE Euskal Autonomia Erkidegoko futbol-federazioak kudeatutakoa den, euskal zazpi probintzia historikoetako futbolariak hartzen ditu deialdietan; hau da, Euskal Herriko hiru eremu politiko ezberdinetakoak. 2003tik 2005era bitartean Nafarroako selekzioak ere nazioarteko adiskidantzazko partidak jokatu zituen, Espainiako liga-txapelketaren Gabonetako etenean. Sinbolikoki eta politikoki euskal selekzioaren eraginari aurre egiteko funtsa zeukan. UPNren

gobernu erregionalistak, espainiar jarrerakoak, Nafarroa euskal nazionalismoaren proiektu politikoan txertatzen zuen euskal nazio-taldetik bereizi nahi zuen. Horrenbestez, Nafarroako jokalariei bi taldeen artean erabakitzeko betebeharra jarri zien; besteak beste, Ismael Urzaiz, Carlos Gurpegi eta Roberto Martinez Ripodas Tikori. Hiru horiek Athleticen jokatzeko zuten, eta euskal selekzioarekin aritzea aukeratu zuten (Gomez, 2007: 163-164). Nafarroako Selekzioak ezin izan zuen hiru urteotan Sadarreko futbol-zelaiari jarraitzaile askorik bildu. XXI. mendeko lehen hamarkadan Gabonetako liga-etena nazioarteko adiskidantza-partidak jokatzeko erabili zuten Espainiako erkidegoetako selekzio gehienei gertatu antzera, usadio hori amaitu egin zuten azkenerako, gizarte-atxikimendu faltagatik. Futbolaz gaindiko esangura zuten euskal selekzioak eta Kataluniakoak, ordea, ohitura horri eutsi ez ezik, urrats gehiago egiteko asmoa ere nabarmendu zuten.

Inondik ere, estaturik ez edukitzeak futbolaz euskal nazio-nortasuna gorpuztea zailtzen du. Nolanahi ere, futbolariek, funtsezkoa den gabezia hori ahanzi gabe, islatzen ditu euskal nazio-komunitatearen gatazkak ere, barrukoak eta berezkoak dituenak. Euskal Herria, hainbatek kultur nortasuna bakarrik aitortzen diona, hiru eremu politiko ezberdinetan zatituta dago, eta horietako batek, Ipar Euskal Herriak, ez du Frantziaren baitan izaera politikorik. Horrek denak askotariko hautemateak sustraitu ditu euskal nortasunaren inguruan. Batzuek espainiar eta frantziar nazio-nortasunen mendeko nortasun-emailetzat dute; beste batzuek beren berezko nazio-nortasuntzat. Gainera, euskal herritar izateari buruzko definizioa ere askotarikoa da. Badira jaioterria eta hizkuntza faktoreak lehenesten dituztenak, Ipar Euskal Herrian nagusiki; eta bestalde, Hegoaldean, oro har, euskal herritar izateko borondateari garrantzi handiagoa ematen diotenak (Eusko Ikaskuntza eta Euskal Kultur Erakundea, 2005). Hauteskunde-emaitez, gainera, atxikimenduen aniztasuna adierazten dute euskal nortasuna hobesten dutenen eta Espainia eta Frantziako nazioen mendean ezartzen duten alderdi politikoen aukeren artean. ETAk 2011n behin betiko indarkeria geldiarazi izanak bizikidetzan eta nazio-nortasunen gizarte-kudeaketan aro berria zabaldu zuen Euskal Herrian.

Euskal selekzioak, nazio-atxikimendu ezberdinen auziaz gain, Euskal Herria beren naziotzat dutenen arteko batasun eza agerikoa uzten du. Izan ere, euskal nazioa ordezkatzeko duen euskal selekzioaren inguruko azken urteotako gatazka horren adierazgarria da. Argigarria da, adibidez, euskal nazioa izendatzeko ezadostasuna. 2007ko abenduan euskal selekzioak lehenengoz jokatu zuen Euskal Herria deituraz, Kataluniaren aurka jokatu zuten adiskidantza neurketan. Taldeak mugaz bi aldeetako lurraldea ordezkatzeko zuten, eta bi esparru horietako futbolariek hornitzen zuten, Euskal Herria izena hobetsi zuten jokalariek. Izan ere, Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak osatzen duten erkidego politikoaekin lotu ohi da selekzioaren aurretiazko izendapena, Euskadi, Sabino Arana EAJren sortzaileak euskal nazioarentzat asmatu zuena. Aitzitik, hain justu, EAJK zuzendutako Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Federazioak presioa egin zuten Euskadi deitura historikoa berreskuratzeko zedin, eta horregatik 2008 eta 2009an futbolariek adiskidantza partidarik ez jokatzeko erabaki zuten. Eztabaida politikoa eragin zuen, euskal nazionalismoaren eskuin eta ezkerreko alderdi eta pentsaeren artean bereziki, euskal selekzioarekin atxikimendua dutenen artean alegia. Izatez, 1993an ezarri zen

Gabonetako partiden usadioa gelditzea zen soilki, horren aurretik ez baitzen izan horrelako ekimen jarraiturik. Alabaina, nazioaren izena, lurraldetasuna eta euskal selekzioaren erabilera, eta, ezin uka, alderdikeria, izan zituen ezaugarri gertatuak, futbolariak ere barnean harrapatu zituena (Rojo-Labaien, 2014a: 103). Selekzioak Gabonetatik haratago partidak joka zitzen federazioak aditzera eman zuen ekimengabezia izan zen, bestalde, futbolariak beren erabakia azaltzeko kaleratu zituzten azalpenezko oharretan arrazoitu zutena.

ESAITek eta euskal jokalarien gehiengoak bat eginik euskal futbol-federazioari galdegin zioten ofizialtasunerako bidean urrats gehiago egitea, eta 2010ean xede horretan akordiora iritsi ondoren, euskal selekzioak berriz ekin zion Gabonetako partidak jokatzeari. Venezuelari jarki eta gailendu zitzaion. Hain justu, Euskal Selekzioa izendapena, deitura berezia, hartu zuen orduz geroztik selekzioak, Euskadi eta Euskal Herria nazio-deituren ezbaitek ihesean nolabait. Futbol nazio-taldea, eta hartara, nazioa, deitzeko eztabaidak euskal nazionalismoaren baitan askatu gabe den auzia nabarmentzen du. Halaber agerikoa da, nazioaren komunitate imajinatua elikatzen duten sinbolo eta lurraldearen mailan zehaztapen eta batasun eza. 2012ko ekainaren 23an lehenengo aldiz emakumeen euskal selekzioak Eslovakiaren aurka nazioarteko partida jokatu zuenean, Euskal Herria izendapena hartu zuen. ESAITek, Euskal Herria Kirola elkarteak eta Kontseiluak batera antolatu zuten euskal selekzioak 1-0eko emaitzaz Donostiako Anoeta zelaian irabazi zuen neurketa. Anthony Smithek azaltzen duenez (1997: 15), bandera, ereserki, uniforme, monumentu eta, oro har, ekitaldien sinbolo-izaerak sorrarazten du nazio-atxikimendua. Kirol-ekitaldi handietako nazioarteko lehia-ezaugarririk gabe, euskal nazioak ezin ditu orain arte futbolaren bitartez imajinatutako komunitatearen sinbolo partekatuak nagusiki gizartean ezarri.

Are gehiago, elkartasun eza da Euskal Selekzioaren proiektuan aurrera urratsak egiteko prest dauden agintarien eta talde ekintzaileen artean hauteman daitekeen ezaugarri nagusia. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak mesfidantzarekin erreparatzen die euskal selekzioen ofizialtasuna eskatzen duten herri-mugimenduei. Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendari Jon Redondok 2013an *Berrria* egunkarian adierazi zuen euskal kirol-selekzioen aldeko ekimenaren gidaritzara Eusko Jaurlaritzari eta EKFB Euskal Kirolen Federazioen Batasunari dagokiela (Redondo, 2013). Bestalde, euskal selekzioen ofizialtasunaren aldeko herri-taldearen artean ere ez dago batasunik, ez eta elkartasunezko ekimenik ere. 2009ko abenduaren 27an Donostiako Belodromoan ehunka kirolarirekin antolatu zuten KirolHaerria jaialditik sortu zen Euskal Herria Kirola mugimendua. Euskal Herri mailako txapelketak sorraraztea, eta era horretara, kirolaren eta kirolarien ekinaz euskal selekzioak bideratzea, helburu zuen. Elkarte horren arabera, ESAITetik ezberdintzen zen horretan, ESAITek izaera politikoagoa zuelako (Rojo-Labaien, 2014a: 115). Gainera, 2014ko abenduan, Euskal Selekzioak eta Kataluniak Bilbon elkarrekin jokatu zuten adiskidantza-partida sinbolikoari lotuta, Jauzia deituriko beste plataforma bat sortu zen Durangon euskal selekzioen ofizialtasunaren alde pausoak emateko asmoz. Kirolari eta kirol-talde ugariaren babesa jaso zuen ekimenak, lehenago ere helburu berarekin egindako ekimenak beren atxikimenduz sostengatu zituztenen antzera. Jauzia plataformak aurkezpenean iragarri zuen herritar, kirolari, federazio eta erakundearen arteko

elkarlana sustatuko zuela euskal selekzioen alde (Larrabe Arnaiz, 2014). Dena dela, Euskal Herria Kirolak eta ESAITek ez zuten ekimen berriarekin hartu-eman zuzenik.

Redondok 2013an *Berrian* adierazia da Euskal Herriak, zehazten ez zuen estatus politikoa lortu arte, ia ezinezkoa izango duela nazioartean ofizialtasunez lehiatzea (Redondo, 2013). Dena den, 2014ko apirilean, lege-txostena kaleratu zuen Eusko Jaurlaritzak Espainiako, Europako edo nazioarteko lege-egituretan euskal selekzioen parte-hartzea debekatzen duen inolako araubiderik ez dagoela jakinarazteko (EITB, 2014). Euskal selekzioen legezko bideragarritasunaz egindako jardunaldietan aurkeztu zuten txosten juridikoa. Bistan denez, bata futbolaren izaera politikoak ezarritako baldintza politikoak dira, eta bestea legeetan zehaztutakoa. Redondok, *Berria* kazetan argitu zuen (2015) federaziorik ez dagoen kiroletan, edo estatua izatea eskatzen ez dutenetan, aukera izan dezakeela euskal selekzioak. Ez da ahaztu behar azken kasu horretan ere Espainiako Konstituzio Auzitegiaren epaiak eragotzi egiten duela, baldin eta Espainiaren federazioa kirol horretan badago. Dena dela, futboleant, kirol orotan luzaz ordezkari-tza sinboliko handiena duen aldaeran, estatua eduki behar izatearen egungo oztopo gairdiezina orotarazi zuen Redondok. Egoera hori aldatu bitartean, FIFAk nazioarteko partidak jokatzeko araututako datetan, Euskal Selektzioak adiskidantza-zko neurketa gehiago jokatzeko urratsak egingo zituztela iragarri zuen. ESAITek nahiz Euskal Herria Kirolak antzeko proposamenak eginak zituzten, baina oraindik ez dira gauzatu. Ildo berean, legeen eremuan ere, Eusko Jaurlaritzak Europar Batasunera edo Europako Justizia Auzitegira joko zuela iradoki zuen, Euskal Selektzioak futboleko ekitaldietan lehiatu ahal izan dezan. Orotara, Eusko Jaurlaritzaren Kirol zuzendariak berretsi zuen ESAITek 2008an esan zuena, hots, Gabonetako adiskidantza-zko partida soilen zikloa amaitua zela, eta horrez gairdiko urratsak egin behar dituela Euskal Selektzioak. Futbolari-ek betiere euskal nazio-taldean aritzeko eta pausoak emateko prestutasuna agertu dute. Horretan badago adostasunik. Egokiera horretan, 2015eko martxoaren 21ean, ESAITek bere desagerpena iragarri zuen prentsa-ohar batean. Gizartean eta kirolari-engan euskal selekzioen ofizialtasunezko eskubidea barneratuta dagoela arrazoitu zuen alde batetik ESAITek bere ibilbidea amaitzeko agirian. Bestetik, egoera politikoaren aldatetak elkarlaneko urrats berriak egiteko aukera ematen duela argudiatu zuen. Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldeak 18 urteko bidea amaitu zuen horrela (ESAIT, 2015).

Bestalde, testuinguru horretan, ezin aipatzeke utzi euskal errugbian azken urteetan izan diren estatuen mugaz gairdiko hartu-eman berriak. Euskal Herria Kirolak 2012ko abuztuan Donostian antolatu zuen Euskal Herriko Kopa Txapelketaren finala horren isla da, Aviron Bayonnais eta Biarritz Olympique Pays Basque Lapurdiko goimailako taldeak alderatu zituena. Bi taldeok Europako txapelketako eta Frantziako Ligako partida ugari jokatu dituzte azken urteetan mugaz bestaldean, Donostiako Anoeta estadioan. Ia usadio bihurtu da horrenbestez, taldeon eta euren milaka jarraitzaile lapurtarren bertaratzea, mugaz bi aldeetako elkar ezagutza indartzen duena. Hainbat urtetako hurbileko hartu-emanaren bidetik, 2014ko abenduan, ituna izenpetu zuten Hegoaldeko Euskal Errugbi Federazioak eta Aviron Bayonnais talde lapurtarrak. Besteak beste, errugbiaren bidez Euskal Herriko identitate partekatua

eta Euskal Herriaren nazioartekotzea bultzatzeko asmoa plazaratu zuten (Urraburu, 2014). Bidenabar, gertagarria da, behinola errugbiak eta futbolak Pirinioen bi aldeetako euskal gizartea sinbolikoki zatitu bazuten ere, XXI. mendean hurbiltzeko tresnak izatea, futbola baita errugbia ere.

4. Ondorioak

Futbola euskal nazio garaikidea aztertzeko ikerketa-tresnatzat hartu da artikulu honetan, hots, euskal futbolaren nazio-izaera euskal nazioaren nolakotasuna aztertzeko baliatu da. Bidenabar, euskal selekzioak eta euskal klubek Espainiaren barneko nazio-bereiztasuna nabarmendu dute, eta Euskal Herriaren bereiztasunaren ardatz sinbolikoak bilakatu dira. Espainia eta Frantzia estatu-nazioen mendeko izaeragatik euskal nazioaren mugak azaltzen dituzte. Euskal Selekzioak nazioarteko txapelketak jokatzeko duen abagunea balizko euskal estatua sortzearen aukeraren mendean dagoela ondorioztatu da. Futbol-ordezkaritza eta estatu-nazioa hertsiki lotuta daude, eta areago globalizazio-garaian, estatuari zilegitasuna ematen zioten bestelako ahalbide sinbolikoak ahuldu direnean. Futboleko FIFAk nazioarteko txapelketetan lehiatzeko baimendutako selekzioa izateak ia osoki burujabetasun politikoa aditzera ematen du. Hartara, berezko selekzioa izatea eta burujabetza aitortua edukitzea ia sinonimotzat hartu behar dira. Futbola politikoa da osoki, sortzez XX. mendean, Lehen Mundu Gerraren inguruko nazionalismoen norgehiagokaren giroan, horrela egituratu baitzuten. Funtsezkoa da abiapuntu hori aintzat hartzea, Euskal Selekzioaren geroari eta euskal nazioarenari arrazoibidezko gogoetaz erreparatzeko. Horrek ez du esan nahi futbol-selekzioak nahiz euskal nazioak aurrerako urratsik egin ezin detzaketenik, errealitatea ezagun izan behar dela baizik. Bitartean, euskal klubek euskal nazio-nortasunaren ordezkaritza-gidaritza dute, munduan bereizgarria den sorterriko, edo bertako haztegiko, jokalariekin nagusiki lehiatzeko borondategatik, eta horrek emandako identitate-euskarriagatik.

Dena dela, futbolak eta Euskal Selekzioak euskal nazioaren konplexutasuna adierazten dute barnera begira ere. Euskal Herrian industrializazio berantiarren testuinguruan gizarteratutako euskal nazionalismoak eta futboleko ekitaldiaren erabilerak balio izan dute Espainiako estatu-nazioaren proiektutik berezko nazio-nortasuna bereizi ahal izateko. Alabaina, ez dute lortu euskal nazioaren bateratzailea izaterik. Izan ere, euskal nazio-nortasuna hobesten dutenen artean ere, hau da, euskal nazionalismoaren baitan dauden ekimenen artean ere, elkartasun eza da ezaugarriarik adierazgarriena, euskal selekzioaren inguruko liskarrek aditzera ematen duten gisara. Ondorioz, Espainia eta Frantziako estatuek Euskal Herriaren nazio-ordezkaritzari ezarritako eragozpenaz batera, euskal nazioaren nolakotasunaren barneko gogoeta sakonagoari bide ematen dio kirolak. Euskal futbol-selekzioak adierazten ditu euskal nazioaren lurraldetasunaz, sinboloek eta izenez ebatzi gabe dauden ezbaiak. Futbolak nazioarteko ekitaldietan estatu-nazioen ikurrak bateratzen eta zilegitzen lagundu ohi du, eta sinbolo horiek nazioarekin atxikimendua ziurtatzeko eragin handikoak dira. Onura horretaz abantaila ateratzeko, jakina denez, derrigorrezko baldintza da aurrez estatua edukitzea, futbolak estatuen ereduaren hegemonia betikitzen baitu. Estatu-izaeraren gabeziak euskal selek-

zioaren proiektuaren gaineko adostasuna erasaten du, eta hein berean ere, horrek haragitzen duen euskal nazioaren izaerari buruzkoa.

Modernismoaren garaitik eratorritako erabateko sinesmenak eta egiturak ezbaian daude, gaur egungo ziurgabetasuneko globalizazioaren aroan. Orduan jaiotako estatu-nazioaren ereduak bere izateari eutsi dio, baina behinolako hegemonia galdua du. Horrenbestez, bestelako antolamendu politikoen abaguneaz hausnartuta, aztergai izango da epe ertainera bederen, erakundetze modu berrituen harira, Euskal Herriko mugaz gaindiko harremanen abagunea. Horretarako ere kirola, eta zehazki esateko, futbola eta errugbia, izan beharko lituzke etorkizuneko ikerketa-ildoak zientzia-jomuga eta bitarteko. Bada, 1920ko hamarkadaz geroztik estatu-mugen bi aldeen arteko aldea handiagotu bazuten futbolak eta errugbiak, iruditeria simbolikoa bereizita, gerta daiteke, XXI. mendeko ekimen anitzen harira, Pirinioen bi aldeetako euskal lurraldeak hurbiltzeko gailua izatea kirol horiek ere. Orain arte, euskal nortasunaren gotorlekuak izanak dira bateratzaileak baino gehiago. Estatu-nazioen hegemoniaren mendean erresistentziatzko bitarteko eraginkorrak izan dira funtsean.

5. Erreferentziak

- Anderson, B. (1991): *Imagined Communities: Reflections on the Origin and Spread of Nationalism*, Verso, Londres eta New York.
- Bairner, A. (2001): *Sport, Nationalism and Globalization*, University of New York Press, New York.
- Ball, P. (2010): *Morbo. La historia del fútbol español*, T&B Editores, Madril.
- Bidegain, E (2014): *Lehen mundu gerra eta Euskal Herria*, Elkar, Baiona.
- Billings, A.C. (2008): *Olympic Media: Inside the biggest show on television*, Routledge, Londres.
- Boyle, R. eta Haynes, R. (2000): *Power play: Sport, the Media and Popular Culture*, Longman, Londres.
- Bromberger, C. (1998): *Football, la bagatelle la plus sérieuse du monde*, Bayard Éditions, Paris.
- Castañón Rodríguez, J. (1993): *El lenguaje periodístico del fútbol*, Universidad de Valladolid, Valladolid.
- Catalá Oltra, L. (2012): «El uso del deporte como instrumento reforzador del sentimiento nacional. El caso de la selección española de fútbol (2008-2010)», in *IX Soziologia eta Zientzia politikoaren Kongresua: Gizarte Zientzia berria aro berri baterako*, Bilbo.
- Cronin, M. (1998): «When the World Soccer Cup is played on roller skates: The attempt to make Gaelic Games international: The Meath-Australia matches of 1967-68», in M. Cronin eta D. Mayall (arg.), *Sporting Nationalisms: Identity, Ethnicity, Immigration and Assimilation*, Frank Cass, Londres eta Portland, 170-188.
- Darbon, S (2008): *Diffusion des sports et impérialisme anglo-saxon: De l'histoire événementielle à l'anthropologie*, Éditions Maison des Sciences de l'Homme, Paris.
- De la Madrid, J.C. (2013): *Una patria posible: Fútbol y nacionalismo en España*, Trea Ensayos, Gijón.

- Dietschy, P. (2010): *Histoire du football*, Perrin, Paris.
- Dunning, E. (1989): «La dinámica del deporte moderno: Notas sobre la búsqueda de triunfos y la importancia social del deporte», in N. Elias eta E. Dunning (arg), *Deporte y ocio en el proceso de la civilización*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 247-270.
- EFE (2012): «Las selecciones vascas podrán competir internacionalmente si España no tiene representación», *Diario Vasco*, apirilaren 26a.
- EITB (2014): «Legeak ez die galarazten euskal selekzioei nazioartean parte hartzea», apirilaren 10a.
<<http://www.eitb.eus/eu/albisteak/politika/osoa/2158838/euskal-selekzioen-ofizialtasuna--jaurilaritzak-txostena-aurkeztu-du/>>.
- El Mundo (2012): «Susaeta: "Representamos... una cosa"», azaroaren 13a, <<http://www.elmundo.es/elmundodeporte/2012/11/13/futbol/1352795447.html>>.
- El País (2014): «Blatter: "Gibraltar no puede ser aceptado como miembro de la FIFA"», irailaren 29a, <http://deportes.elpais.com/deportes/2014/09/29/actualidad/1411999073_409783.html>.
- Elias, N. (1989): «Un ensayo sobre el deporte y la violencia», in N. Elias eta E. Dunning, *Deporte y ocio en el proceso de la civilización*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 185-212.
- ESAIT (2015): *ESAITen agiria*, martxoaren 21a, <<http://www.esait.org/?q=eu/node/459>>
- Espainiako Gobernu (1990): 10/90 legea kirolarena, urriaren 15ekoa.
- Eusko Ikaskuntza eta Euskal Kultur Erakundea (2005). *Pratiques culturelles et identités collectives au Pays Basque 2004-2005*, <http://files.eke.org/pdf/inkesta_praktika_kulturalak_grafikoak.pdf>.
- Eusko Jaurlaritz (2003): *Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoaren Proposamena*, <<http://www.berria.info/dokumentuak/ibarretxerenplana.pdf>> estekan esku-ragai.
- Fernández Monje, X. (2003): *Euskal selekzioa eta futbola Ipar Euskal Herrian*, Aralar Liburuak argitaletxea, Andoain.
- Gellner, E. (2009): *Nazioak eta nazionalismoa*, Klasikoak, Bilbo.
- Gómez, D. (2007): *La Patria del Gol: Fútbol y política en el Estado español*, Alberdania, Irun.
- González Abrisketa, O. (2005): *Pelota vasca: Un ritual, una estética*, Muelle de Uribitarte, Bilbo.
- González Aja, T. (2002): «La política deportiva en España durante la República y el Franquismo», in T. González Aja (arg.), *Sport y autoritarismos. La utilización del deporte por el comunismo y el fascismo*, Alianza Editorial, Madril, 169-202.
- Gotzon, J. (1998): *Euskadiko futbol selekzioaren historia*, Ediciones Beitia, Bilbo.
- Hobsbawm, E. (1992): *Nations and nationalism since 1780: Programme, myth, reality*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Jarvie, G. (2006): *Sport, Culture and Society: An Introduction*, Routledge, Londres.
- Jenkins, R. (2014): *Social identity*, Routledge, Londres.
- Larrabe Arnaiz, A. (2014): «Ofizialtasunerako Jauzia», *Berria*, abenduaren 6a, <http://www.berria.eus/paperekoa/1787/024/001/2014-12-06/ofizialtasunerako_jauzia.htm>.
- Llopis Goig, R. (2008): «Identity, Nation-state and Football in Spain. The Evolution of Nationalist Feelings in Spanish Football», *Soccer & Society*, 9, 56-63.

- López, M. (2014): «Piqué: estoy a favor de la consulta», *El Periódico*, irailaren 16a, <<http://www.elperiodico.com/es/noticias/barca/pique-estoy-favor-consulta-3523477>>.
- Miquelarena, J. (1938): «Fútbol sin política», *Marca*, abenduaren 21a, <http://www.elmundo.es/elmundodeporte/especiales/2002/02/centenario/1938_5.html>.
- Quiroga, A. (2013): *Football and national identities in Spain: The Strange Death of Don Quixote*, Palgrave Macmillan, Basingstoke.
- Redondo, J. (2013): «Gure ofizialtasuna eskatzea ez da besteei kalte egitea», *Berria*, otsailaren 5a, elkarrizketaren egilea: J. Etxeberria, <http://paperekoa.berria.info/kirola/2013-02-05/022/001/eutsi_egin_behar_dugu_kolpeari_nola_edo_hala_aurre_egin.htm>.
- , (2015): «Bidea errazagoa da Espainia eta Frantzia ez dauden lekuetan», *Berria*, otsailaren 10a, elkarrizketaren egilea: U. Zubeldia, <http://www.berria.eus/paperekoa/1833/024/001/2015-02-10/bidea_errazagoa_da_espainia_eta_frantzia_ez_dauden_lekuetan.htm>.
- Rojo-Labaien, E. (2014a): *Futbola eta nazio eraikuntza Euskal Herrian eta Espainian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- , (2014b): El fútbol: reflejo permanente de la diversidad nacional del estado español desde sus orígenes, *Apunts Educació física i Esports*, **116**, 23-32.
- Shaw, D. (1987): *Fútbol y franquismo*, Alianza Editorial, Madril.
- Smith, A.D. (1997): *La identidad nacional*, Trama Editorial, Madril.
- Sonntag, A. (2008): *Les Identités du football européen*, Pug, Grenoble.
- Unzueta, P. (1999): «Fútbol y nacionalismo vasco», in S. Seguro (arg.), *Fútbol y pasiones políticas*, Debate, Madril, 147-167.
- Urraburu, B. (2014): «La Federación Vasca y Baiona se unen en un proyecto único», *Diario Vasco*, abenduaren 31, <<http://www.diariovasco.com/deportes/mas-deportes/201412/31/rugby-federaciones-vasca-201412310904.html>>.
- Wahl, A. (1997): *Historia del fútbol, del juego al deporte*, Ediciones B, Bartzelona.
- Walton, J. (1999): «Football and Basque identity: Real Sociedad of San Sebastián, 1909-1932», *Memoria y Civilización*, **2**, 261-289.
- , (2011): «Sport and the Basques: Constructed and Contested Identities, 1876-1936», *Journal of Historical Sociology*, **24**, 451-471.

